

LEZO / Bihar, Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa ' Kontuak kontu, ipuin lokartuak esnatu ' emanaldia eskainiko du Udal Liburutegian

L. Muguruza

Bihar, 18:15etik aurrera, Miriam Mendoza ipuin kontalaria izango da Andreone Udal Liburutegian. Udalaren laguntzarekin haurren artean literatura sustatzeko aurrera daramaten ekimenaren baitako emanaldia da. Kontalariak lau eta sei urte arteko haurrentzako emanaldia eskainiko du, eta Kontuak kontu, ipuin lokartuak esnatu izena du ikuskizunak.

Ez da Miriam Mendoza ipuin kontalariak Lezora bisita egiten duen lehen aldia. Azkenengoz Tomas Garbizu Musika Eskolak urtero antolatzen duen Lesoinu Aste Pedagogikoaren XXI. aldian parte hartu baitzuen.

Musikari buruzko ipuin kontaketa eskaini zuen, gaztetxoez eta haien gurasoez beteta zegoen Gezala Auditoriumean: Jaxintoren giltza erraldoia izan zen orduan eskainitako ipuin kontaketa.